

ASTE NAGUSIKO XXIV. ARRANTZA TXAPELKETA

MIGUEL ANGEL FERNANDEZ MEMORIALA

Aste Nagusiko antolakuntzak, Gipuzkoako Arrantza Federazioaren laguntzarekin, Aste Nagusiko XXIV. Arrantza Txapelketara deialdia luzatzen du. Txapelketa abuztuaren 17an izango da, 10,00etatik 13,00etara. Hona hemen

OINARRIAK

1. Bi kategoria ezarriko dira:

Haurrak: Txapelketa egunean 15 urte bete gabe dituztenak.

Helduak: Txapelketa egunean 15 urte beteta edo gehiago dituztenak.

2. Haurren kategoriako txapelketan bete beharreko arauak:

Arrantza gunea: Santa Katalina zubiaren hegoaldea, Maria Kristina zubiaren iparraldea eta Frantzia pasealekuaren aldea.

Arrantza postuak: Arrantza postuak libreak izango dira. Arrantzaleen arteko distantzia 2 metrokoa izango da, gutxienez.

Arrantza egiteko modua: Arrantza jaurtiketakoa izango da bakarrik. Gehienez hiru amu dituen kanabera bakar bat erabiliko da.

Piezak: 50 gramo baino gehiago pisatzen duten pieza guztiak onartuko dira.

Puntuazioa: Onartutako piezek pisatzen duten gramo bakoitzeko puntu bat lortuko da.

Biltzeko tokia: Frantzia pasealekuan, egongo den etxetxoan, proba hasi baino ordu bete lehenago (09:00 orduetan).

3. Helduen kategoriako txapelketan bete beharreko arauak:

Arrantza gunea: Urumea ibaia itsasoratzen den tokia (bi aldeetan). Pasealeku Berriko lehen biribilgunetik Akuariora doan aldean, eta Zurriolako kaimuturreko zati batean, (oinezkoentzat bakarrik ez den zatian, alegia) ezin izango da arrantza egin, ez eta harkaitzetatik ere.

Arrantza postuak: Arrantza postuak libreak izango dira. Arrantzaleen arteko distantzia 2 metrokoa izango da, gutxienez.

Arrantza egiteko modua: Arrantza jaurtiketakoa izango da. Gehienez hiru amu dituen kanabera bakar bat erabiliko da.

Piezak: 100 gramo baino gehiago pisatzen duten pieza guztiak onartuko dira, korkoia eta aingira izan ezik.

Puntuazioa: Onartutako piezek pisatzen duten gramo bakoitzeko puntu bat lortuko da.

Biltzeko tokia: Jesus Maria Leizaola pasealekuan, Kursaal ondoan, egongo den etxetxoan, proba hasi baino ordu bete lehenago (09:00 orduetan).

4. Pisatzea:

Gipuzkoako Arrantza Federazioak pisatzeko makinak jarriko ditu zenbait puntutan. Arrantzaleak, pieza bat hartzen duten bakoitzean, makinari gertuenera hurbilduko dira eta bertan pisua apuntatuko zaie. Arrantzaleek hartutako piezei ahalik eta min gutxien egiten saiatuko dira eta, pisatu ondoren, itsasora bueltatuko dituzte. Pisatzeko makinetan aurkezten ez diren piezak ez dira aintzat hartuko. Lehiaketa amaierako seinalea entzun orduko, arrantzaleak Jesus Maria Leizaola pasealekuko kontrol postura hurbilduko dira (Kursaaleko kaimuturra).

5. Epaimahaia:

Federazioko kideek osatuko dute.

6. Trofeoak:

Helduen eta haurren kategorian, lehen, bigarren eta hirugarren postuak lortzen dituztenei trofeo bana eta arrantzako materiala emateaz gain, piezarik handienarengatik trofeoa eta arrantzako materiala ere emango zaie. Haurren kategorian, saridunak izan ez direnei domina banatuko zaie. Sariak proba amaitu eta epaimahaiak arrantzale guztien txartelak egiaztatu ondoren banatuko dira.

7. Izen ematea:

Aldez aurretik izena eman nahi duten lehiakideek Gipuzkoako Arrantza Federaziora jo beharko dute edo Donostia/San Sebastián Festak-en www.astenagusia.donostiakultura.eus web orrialdean **PARTE HARTU atalean** apuntatu daiteke. Epea oinarri hauek argitaratzen direnean hasi eta abuztuaren 14an amaituko da. Proba hasi baino ordu bete lehenagotik eman ahal izango dira izenak lehiaketa egiten den tokian bertan, hau da, Jesus Maria Leizaola pasealekuan (Kursaal ondoan) egongo den kontrol postuan.

Donostia, 2018ko uztaila